

TERESA LISEUXKOA

Eliza Katolikoak, bere historian zehar, emon dituan fruitu ederrenak santuak ditugu. Eurok bai dirala, Jesusen Ebanjelioaren ispilurik garbienak. Euron bizitzan, teoria eta praktika, fedea eta maitasuna, izana eta esana ez dira ageri alkarrengandik bananduta, barne-barnetik uztartuta baino. Santuen mezua euren bizitza besterik ez da. Horixe gertatzen da bereziki Teresa Liseuxkoagaz be. Bere mezurik ederrena bere bizitza dogu-eta.

Santuen izartegian, aparteko eran diz-diz egiten dihardu. Elizatik kanpo be, oso maitagarri egiten da. Haren distirak ez dabe ezagutzen mugarik. Bere bizitzari hunkigarria deritxagu. Eta gaur be, edozein bihotz, poliki-poliki, biguntasunez eta gozotasunez ikututen dihardu, itxaropenaren argia biztuz.

Bere mezua bere bizitzan murgilduta daukagu. Eta hor ez dago tranparik. Hortik datorkioz bere xarma eta erakargarritasuna. Horregaitik liluratzen gaitu. “Bai, egia besterik ez dut neure bizitza guztian bilatu” (KH 30, 9), esango dau hil zan egunean bertan. Holako momentuak ez dira txantxetakoak.

Bere bizitzan ez dira faltako krisiak, larritasunak, oztopoak, zailtasunak, trabak, estresa, eragozpenak. Gauzea ez da krisirik eta zailtasunik ez izatea. Bizitzako trabak maitasunez eta errealismoz eta mingostasun barik benetan gainean hartzea da arazoa. Hor dago koska!

Eta horretan artista dogu Teresa Lisieuxkoa. Ez da kikilduko eragozpenen aurrean. Hor be erakutsiko dau bere nausitasuna. Bere bizitza labur bete-betean jasandako eragozpenak, maitasunez eta umiltasunez, apain eta dotore gaindituko ditu. Zailtasun guztien aurrean, bere bihotz gaztea maitasuna pol-pol dariola daukagu. Ez dau aurkituko ezinezko oztoporik maitatzeko orduan. Berarentzat, egoera guztietan posible izango da maitasuna.

Teresaren “gaixotasun bitxia”

Hamar urte dituala, gaixotasun arraro bat jasango dau. 1883. urteko martxoaren 23tik maiatzaren 13ra bitartean. Hamabi urte beranduago, honela gogoratuko dau zehatz-mehatz bere autobiografian:

“Urtearen bukaerarantz (1882koa)etengabeko burukominak jo ninduen, baina ia ez zidan batere oinazerik eman; nik jarraitu ahal izan nituen neure ikasketak eta inor ez zen nitaz kezkatu. Honek 1883ko Pazko jairarte iraun zuen. Aita, Maria eta Leoniarekin Parisera joanik, nire izebak jaso ninduen bere etxean Zelinarekin batera. Arratsalde batean, nire osabak berekin eramanez, neure amari buruz hitz egin zidan, lehengo oroitzapenei buruz, hain maiteki hitz egin ere, non barru-barrutik hunkitu baininduen negar egiteraino. Bihotz sentikorregia nuela esan zidan orduan eta jostatu beharra nuela, eta Pazko oporraldian jostatzeko bide batzuk guri eskaintzea erabaki zuen izebarekin batera. Arratsalde hartan katolikoek batzarlekura joan behar genuen; baina ni gehiegi nekaturik nengoelakoan, izebak ohera eramanez ninduen. Biluzterakoan, dardara berezi batek hartu ninduen. Hotz nintzela uste izanik, nire izebak burusi artean bildu ninduen botila beroak barruan zirela, baina nire dardara ezin izan zuen ezerk gutxitu eta ia gau osoan iraun zuen. Nire osaba nire lehengusina eta Zelinarekin katolikoek batzarlekutik itzuli zenean, harriturik gelditu zen ni egoe-

ra hartan aurkiturik, egoera larria zela uste baitzuen, baina ez zuen ezer esaterik nahi izan, nire izeba ez beldurtzearren.

Biharamunean Notta doktoarean bila joan zen; honek, nire osabak bezala, gaixotasun larria nuela uste zuen eta hain neska txikiak ez zuela sekula izan halakorik. Guztiak zeuden izuririk. Nire izebak ni bere etxean eduki behar izan ninduen eta benetan ardura amatiarraz zaindu ninduen. Aita nire ahizpa nagusiekin Paristik etorri zenean, Aiméek hain aurpegi tristez hartu zituen, non Mariak hila nintzela pentsatu baitzuen... (...)

Gaixotasun hain larria izan zen, non giza kontuen arabera ez bainintzen sendatuko... Ez dakit nola adierazi gaixotasun hain bitxia. Orain deabruaren lana izan zela buruan sarturik daukat; baina sendatu ondoren, denbora luzez gaixo-itxurak egin nituela pentsatu izan dut, eta hau nire arimarentzat benetako martiritza izan da... (...)

Ez da harritzekoa nik gaixoarena egin nuela pentsatzea benetan hala egon gabe, neuk pentsatzen ez nituen gauzak esan eta egiten baintuen; ia beti eldarnioan nengoela zirudien, zentzurik ez zuten hitzak esanez; eta hala ere ziur nago une batez ere ez naizela egon ezaguerarik gabe... maiz ematen nuen nik zorabioak harturik nengoela, zirkin txikienik ere egin gabe; orduan nahi zutena egiten utziko nien, baita hiltzen ere. Hala eta guztiz ere neure inguruan esaten zen guzti-guztia entzuten nuen, eta oraindik guztiaz oroitzen naiz... Behin gertatu zitzaidan luzaro begiak ireki ezinik egotea, eta une batez irekitzea bakarrik nengoenean... (...)

Gogaikarri zitzaidan jendea tipula-txirikorda bezala nire ohearen inguruan eserita ikustea, mamorro bitxi antzera begiratzen zidatarik. (...)

Behin, ni etzanda nengoen Mariaren gelan sartzen ikusi nuen aita; aurpegikera tristeaz urrezko txanpon batzuk emanaz esan zion Parisera idazteko Garaipenen Andre Mariari mezak ateratzeko bere alabatxo gaixoa senda diezaion. Ai, zein zirrara

handia izan nuen neure errege maitearen fede eta maitasuna ikustean! Sendaturik nengoela esan ahal izatea nahi izango nuen; baina ordurako gezurrezko hainbat poztasun eman nizkion! Ez ziren nire gurariak izango miraria eragin zezaketenak, mirari bat beharrezko baitzen ni sendatzeko... Mirari bat behar zen, eta Garaipenen Andre Maria izan zen egin zuena.

Igande batean (mezen bederatziurrenean), Maria baratzerara irten zen, ni bakarrik utzirik leiho ondoan irakurtzen zegoen Leoniarekin. Minutu batzuk barru, ahots isil-isilez deika hasi nintzen: «Amatxo!». Leoniak, horrelako deiak niri entzuten ohiturik zegoenez gero, ez zidan jaramonik egin. Hark luze iraun zuen. Orduan ozenago dei egin nuen, eta, azkenez, itzuli zen Maria. Oso ongi ikusi nuen sartzen. Baina nik ezin nuen esan ezagutzen nuenik, eta deika jarraitu nuen geroago eta ozenago: «Amatxo!...» Nik asko sufritzen nuen borroka behartu eta adierazgaitz honengatik, eta Mariak, agian, nik baino ere gehiago sufritzen zuen. Bera nire ondoan zegoela niri frogatzeko alferrikako ahaleginak egin ondoren, nire ohe ondoan belaunikatu zen Leonia eta Zelinarekin. Gero, Andre Mariagana bihurturik eta bere alaba bizi dadin eskatzen duen ama baten berotasunaz erregutuz, Mariak lortu zuen nahi zuena...

Lurrean inolako laguntzarik aurkitu ez eta, Teresatxo gaixoa ere zeruko Amagana bihurtu zen, bihotz-bihotzez erregutzen zion berarekin erruki zedila azkenez... Bat batean Andre Maria ederra iruditu zitzaidan, sekula santan inor ikusi ez dudan bezain ederra. Haren aurpegiak esanezineko ontasun eta samurtasuna agertzen zituen. Baina bihotzaren barru-barrua ukitu zidana «Ama Birjinaren irribarre liluragarria» izan zen. Une hartan nire min guztiak aienatu ziren; nire begietatik bi malko lodi jalgi ziren eta isil-isilean limurtu ziren nire masailetan behera, baina poz hutsezko malkoak ziren... Ai, pentsatu nuen, Ama Birjinak irribarre egin dit, zein zoriontsu naizen!... (A Esk., 27i - 30^a)

Hipotesi barri bat

Holantxe kontatzen deusku Teresak bere umetako “gaixotasun bitxia”. Gaixotasuna deabruari leporatzen deutso eta sendakuntza, barriz, Ama Birjinari. Ez eban inoiz ezaguerarik galdu. Eta gaixotasun arraro honek ez deutso ondoriorik itziko. Bakarririk, aldikada baten zehar, dudak bururatuko jakoz, hau da, “gaixoarena egin zuela pentsatzea, benetan hala egon gabe”.

Honetaz hainbat iritzi jaso izan dira. Batzuk betiko baztertuta geratu dira. Esaterako, historiarena eta epilepsiarena eta antzeakoak. Gehien onartu dan hipotesia, Gayral doktorearena dogu. Toulouseko medikuntza fakultateko irakaslearentzat, Teresak shock psikologiko batzuk ia segidan sufritu ditu. Besteak beste amaren heriotza, ikastetxeko lagunen arteko arazoak, lehenengo Jaunartzea urte bete atzeratzea elizbarrutiko lege barrien arabera, aitak bere alaba nagusiekin Parisera egindako ostera, bere amama Faniren heriotza eta batez be, bere ahizta Paulina, bigarren “amatxo” kutunaren komentuan bat-batean sartzea...

Frustrazio honeek sorrarazten dabe gaixotasun bitxi hori. Neurosia besterik ez ei da. “Beraren bigarren amak bertan behera utzia zegoela iritzirik, joera umekoia hartzen du, haurtxo bati bezala xerak egin diezaizkieten” (Carmel, 1959/2, 81-96)

Hipotesi honek ez ditu azaltzen gauza bi. Alde batetik, Teresatxoren bat-bateko hobekuntza eta, bestetik, gaixotasun horren inondiko arrastorik haren bizitzan ez geratzea.

Robert Masson mediku psikiatrak (Soufrance des hommes, un psychiatre interroge Thérèse de Lisieux) beste hipotesi bat jarri dau mahai gainean. Xabier Massonen laguntzaz, hau be mediku psikiatra, inoiz plazaratu ez dan planteamendu barri bat egiten dau. Teresatxoren “gaixotasun bitxiaren” sintomak aztertu ondoren, euron diagnostikoa hauxe da: “Tuberkulosiaren birusak eraginda, oin-ikara edo gorputz-dardara tankerako entzefalitis sufrituko dau Teresatxok”, (el baile de San Vito erderaz deritxona eta danse de Saint Guy frantsesez”)

Bi psikiatra honeen ustetan, Teresatxo bere ikastetxean bigarren kurtsoaren hasieran, 1882.aren azkenerantz, tuberkulosiaren gaixotasunaz kutsatuta geratzen da. Ez bakarrik orduan baita gaur be, tuberkulosia sei urtetik hamalau urte bitartean hartzen ei da normalki. Egungo egoeran, medizinak baditu bere neurriak, gaixo larri hau umeengan eta gaztetxoengan detektatzeko. Baina garai haretan ez!

Koch-en baziloaren kutsadurak bere prozesua egiten dihardu ezkutuan. Bitartean toxinak sortzen doaz. Hilabete batzuk inkubatuta geroztik indarrean prest ei dagoz gure gorputzeko edozein zatiri erasotzeko. Batez be, izurrite masiboetan edo gorputzaren makaldietan baliatzen ei dira gogor joteko. Eta 1883ko Pazko jaietan, tuberkulosiaren toxinak bete-betean harapatuko dabe Teresatxoren burua, entzefalitis gaixo larria sortuz.

Teresatxoren “gaixotasun hain bitxi” hori ez ei da “hain bitxia”, zoritxarrez, oso normala baino. Zenbat hiltzen ziran gaixotasun horrek jota, nahiz eta orduko medizinak ezagutu ez tuberkulosiaren ondorioa izan leitekenik oin-ikara tankerako entzefalitis larria! Teresatxo, zorionez, libratu zan meningitis gaixoa jasan barik.

Bat-bateko hobekuntza datorkio Teresatxori, alde batetik, bere gorputzeko immunitate-indarrak suspertzerakoan eta bestetik, bere buruko edemak berehala xurgatzean, behingoan irenstean.

Horra hor laburtuta psikiatra bi honeen hipotesi barria Teresatxoren umetako “gaixotasun bitxiari” buruz. Zein izango ete da honetaz hurrengo hipotesia?

Hipotesiak hipotesi, Teresaren izarrak hor jarraitzen dau dirdaidun gure bihotzak berotzen eta gure gau ilunak argitzen!

A. Olea